

Atenas-Oñati-Manaus

LASTER IKUSIKO DITUDAN itzaropena dut, ondo bidez, Manausen, Amazonasen. Neureak ez, baina bere artean senide diren bi ikustera noa. Bata, Atenasen bataiatua, 1860an. Oñatin bestea, 1798an. Lehen ere bai, baina bataiatu ondoren ere, Erdialdeko Amerika eta Amazonas artean bizi dira.

Sokrates famatuaren ohorez bataiatu zuten *Socratea exorrhiza*. “Exorrhiza” hitzak adierazten du lurretik kanpora ere sustraiak dituela, trikimako sustraiak. Palmondo bat da, eta oihanean, argia jaso nahi badu, aldameneko zuhaitzekin borrokatuz luza eta luza egin behar, eta lurtean sendo bermatzeko, enbor bakarretik sustraiak luzatuz, oinarria zabaltzen du. Costa Rican, “palmondo ibiltaria” deitzen diote. Oihaneke kaosean adarren bat edo zuhaitzen bat gainera erori eta makurtzen badu, lurra ukituko duen tokian sustrai berriak eman eta zaharrak galduko ditu, eta, hala, bizitoki berri batera mugitu da.

Iriarte deltoidea da Oñatiko kasta duena. Bernardo Iriarte, 1735-1814, Kanarietan jaioa zen, baina bere aitona, Juan Iriarte Etxebe-



EDUARDO CHACÓN-CC BY SA

Iriarte deltoidea, sustraiak lurretik kanpora ateratzen dituen palmondoa.

ria, oñatiarra omen. Gure Bernardo Espainiako erregeen gobernue-tan aritu zen, batean eta bestean (Parman negozio arduradun, Londresen eta Erroman enbaxadako idazkari, Estatu idazkari, “Consejo de Indias”-en idazkari...). Itxuraz, inguruan barra-barra ibiliko zuen diruaren zati bat ikerketarako bideratu zuen, eta mezenas lan horri zor dio geroztik landare genero batek bere izena izatea. *Iriarte deltoidea* ere palmondoa da,

eta, *Socratea*-k bezala, ibiltari izaera ematen dioten trikimako sustraiak luzatzen ditu. Abizena, “deltoidea”, delta edo hiruki formako hostoek ematen diote.

Hiruki ederra, bai, Atenas-Oñati-Manaus. Atenas, Atena jainkosaren habia. Oñati, amabir-jina okupa batek bereganatua. Manaus, bertakoen hizkuntzan “jainkoen ama” esan nahi duena. ■



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Kare oso ona dela hainbat aldiz entzuna dizut. Nire zalantza da ea kare bizia ala hila behar duen. Bizia bada erantzuna, eskertuko nizuke zergatia esplikatu-

tzea, ulertzen baitut kare biziak mikrobio-fauna guztia hilko duela. Eskerrik asko.

Xabier Herrarte (Aramaio)

Kaixo Xabier. Jende guztiak dio kare hila egokia goa dela. Kare bizia ura hartzean hiltzen da. Hiltze prozesuan, gure azalean, ezpainetan edo begietan kare bizia itsasten bada, zelula horietan dagoen ura hartuko du bortizki, eta erredurak azalduko dira. Hori bera gertatuko da lur hezea ukitu beharrean landareak ukitzen baditu: erredurak. Eta landarea ttikia bada, hil. Mikroorganismoekin ere neurri batean hori gerta daiteke.

Hala ere, Euskal Herri atlantikoan dugun hezetan maila dela-eta, zabaldu ordurako hiltzen dela esango nuke. Lurra ukitu ordurako hiltzen dela, alegia. Geurea baino lurralde lehorragoetan arazo hori larria izan daiteke. Geurean ez dut uste...

Edonola, hildakoa nahiago baduzu, kare bizia pila batean jarri eta lurrez estalita eduki denbora batez. Inolako probarik-edo egiten baduzu, gustura hartuko nuke emaitzen berri. ■